

Familiantzako satisfazio-inkestak

2016-17ko kurtsoaren amaieran, gure hezkuntza-lana hobetzeko, inkesta baten bidez, zuei laguntza eskatu genizuen. Dakizuenez, inkestak haur eta lehenhezkuntzako azken zikloetan dauden umeen familiei bidaltzen dizkiegu, hau da, 2 eta 5 urteko taldeei eta 2., 4. eta 6. mailako umei.

Parte-hartzearen indizea hauxe izan da:

Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		
2 urte	5 urte	2. maila	4. maila	6. maila
67%	80%	50%	60%	42%

Posta elektronikoen bidez inkestak bete zituzten haur hezkuntzako familien harrera ona ikusita, aurten lehen hezkuntzan zaudeten familiei inkesta bidaltzeko era berri hau helarazteko asmoa dugu.

“Ikastetxearekin satisfazio-indize OROKORRA” hauxe izan da:

Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		
2 urte	5 urte	2. maila	4. maila	6. maila
8,68	8,30	8,04	8,28	8,19

Jasotako emaitzak eta iradokizunak kontuan izanda, alde batetik, mantendu behar ditugun **indarguneak** eta, beste aldetik, **hobetu behar ditugun arloak identifikatu ditugu**. Azken urteotan, eta zuen laguntzari esker, aurkitutako beharrei erantzunak ematen ari gara eta, etorkizunean, bide berbera jarraitzea espero dugu.

Amaitzeko, gure indarguneak ez ezik, hobe daitezkeen aspektuak ere detektatzen kolaboratzen duzuen familiei eskerrak eman nahi dizuegu. Bai inkesten bidez, bai iradokizunen bidez (web orrian edo ikastetxeko postontzian) edota IGEN bidez ekarpenak egiten jarraitzeko animatzen zaituztegu.